

Gehien bat material birziklatuekin egindako gabonetako apaingarrien lehiaketa

Eskoriatza 2020

Eskoriatzako Udalak gehien bat birziklatutako materialekin egindako gabonetako apaingarrien lehiaketa antolatu du, eta horrekin jendea gonbidatu nahi du Gabon jaiez modu arduratsuan, parte-hartzailean eta ingurumena errespetatuz gozatzera.

OINARRIAK

1.- Helburua

Lehiaketa honen helburua da gehien bat botatzeko diren hondakinak erabilita, horiei erabilpen berri bat emanda, Gabonetako apaingarriak egitea, bai leihoetarako eta balkoietarako, bai eskapetarako edo espazio publikoetarako.

Kontzientzia hartzea nahi da egunero sortzen dugun hondakin kopuruaz eta horrek sortzen duen ingurumen arazoaz, eta horrekin batera, beharrezko ez diren kontsumoak saihesteak duen balioaz jabetzea eta ohiko apaingarriak erabili beharrean egon daitezkeen alternatibak bilatzea.

Familian, eskapeko edo auzoko bizilagunekin, lankideekin... lan egiteko aukera ere bada.

2.- Parte-hartzaileak

Establezimendu, erakusleihoa, balkoia, eskapea, eskapeko atea, lorategia, espazio publikoa, auzoa edo antzekoa apainduz parte hartu nahi duten establezimendu, auzotar talde, kuadrilla, talde edo norbanako guztiek parte hartu ahal izango dute. Baldintza bakarra da apaindutako espazioa kaletik ikusi ahal izatea.

Parte hartzeko, whatsapp bat bidali beharko da, abenduaren 18a baino lehen, 650 49 51 66 zenbakira honako datuekin: arduradunaren izen-abizenak, apaindutako espazioa, eta horren argazkia.

Parte hartzaileek bidalitako argazkiak Udalaren webgunean joango gara jartzen (egileak identifikatu gabe).

Auzogune edo eskapeko bizilagun mailan izena emateko, gutxienez, 4 lagun izan beharko dira talde bakoitzean. Izena emateko whatsappean taldekide guztien izenak jarri beharko dira, eta apaindu gura den gunearen argazkia bidali beharko da. Antolatzaileen oniritzia jasotakoan apaindu ahal izango da hautatutako gunea.

3.- Teknika

Teknika librea izango da. Gabonetako objektu (gabonetako bolak, faroltxoak, kateak, lanparak, gabonetako zuhaitzak...) bihur daitezkeen edozein hondakin erabili ahal izango da (plastikozko botilak, cd-ak, abatz-estalkiak, laten eraztunak, latak, tetrabrikak, bizikleta gurrilak, kable tutuak, telak, kortxoa, beira, egurra...). Apaingarriei argiak ere jarri ahal izango zaizkie nahi izanez gero.

Talde, elkarte edo norbanako bakoitzak bere lana zaindu beharko du erakusgai dagoen bitartean.

4.- Balorazio irizpideak

Ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan: sormena, materialak eraldatzeko erabilitako teknika, ahalik eta erositako material gutxien erabiltzea, erabilitako materialak, diseinua, zailtasuna, berrerabilitako materialen aprobetxamendua.

5.- Sariak

Sariak bonotan emango dira, Eskoriatza Bizirik kanpainari atxikitako establezimenduetan gastatzeko.

- 100 euro establezimendu onenari.
- 200 euro auzogune onenari.
- 100 euro balkoi edo leiho onenari.
- 100 euro eskape onenari.
- 30 euroko 10 sari banatuko dira parte hartzaileen artean.

6.- Apaingarriak jartzeko egunak

Komeni da espazioak abenduak zubian apaintzen hasia; auzoguneak, berriz, apaingarrien iraunkortasunaren eta ezaugarrien arabera apaintzea gomendatzen da, betiere, abenduaren 18an ahalik eta kalitate onena mantentzeko begira.

Apaindu beharreko guneak apainduta egon beharko dira abenduaren 18rako, hori izanik lehiaketan izena emateko azken eguna.

Argiak erabiliz gero, 20:00etatik 21:00etara isiotzea gomendatzen da, ordu horretan behintzat guztiak isiotuta egon daitezten.

7.- Apaingarriak noiz kendu

Apaingarriak gabonetan egongo dira ikusgai, eta 2021eko urtarrilaren 7tik aurrera kendu beharko dira.

Bide publikoa okupatzen duten apaingarriak urtarrilaren 10erako kendu beharko dira, eta zaborrera bota behar baldin badira, behar den moduan birziklatu beharko dira.

8.- Epaimahaiaren erabakia

Epaimahaia abenduaren 18an hasiko da lanak baloratzen, eta sariak 2020ko abenduaren 22an erabakiko dira.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta bera izango da edozein gertaera edo egin dakioken ohar erabakitzeke organo eskuduna.

9.- Baldintza orokorrak

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarrietan jasotako baldintza guzti-guztiak ezagutzea eta onartzea.

Epaimahaiak ahalmena izango du oinarrietan aurreikusi ez diren kasuak erabakitzeke, bai eta sariren bat eman gabe uzteko ere.

